



Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
C.I.F./I.F.K. P3132500D
Tel.: 948132222
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa – Navarra
ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es

XXI. HAUR LITERATUR LEHIAKETA 2020. ARAUAK

Antsoaingo Udalak deia egiten du euskarazko eta gaztelaniako Haur Literatur Lehiaketarako. Antsoaingo haurrek eta ikastetxe hauetako ikasleek parte har dezakete: Ezkaba, Doña Mayor, Esclavas del Sagrado Corazón eta Cardenal Ilundain.

SAILAK

Lehiaketa hiru ikasmaila hauen arabera egingen da:

A) LEHEN HEZKUNTZA. LEHEN ZIKLOA, 1. eta 2. mailak.

Edukia: marrazkia izanen da lehiaketako edukiaren funtsa. Haurrek marrazkien bidez gai libreko ipuin bat egingen dute, eta heldu baten laguntzaz egindako gidoi txiki bat erantsi ahal izanen diote. Marrazkia kalitate onarekin argazki bat egin edo eskaneatu daiteke.

Luzera: 2 orri, gehienez.

B) LEHEN HEZKUNTZA. BIGARREN ZIKLOA, 3. eta 4. mailak.

Edukia: gai libreko ipuinak. Egileek lanak marrazkiekin/irudiekin osa ditzakete. Lana kalitate onarekin argazki bat egin edo eskaneatu daiteke.

Luzera: 3 orri, gehienez.

C) LEHEN HEZKUNTZA. HIRUGARREN ZIKLOA, 5. eta 6. mailak.

Edukia: bi modalitate.

1. Gai libreko ipuinak. Lanak marrazkiekin/irudiekin osa daitezke.

Luzera: 4 orri, gehienez.

2. Bertso paperak. Luzera: 6 koplak, 3 zortziko txiki edo zortziko handia.

AURKEZPENA.

Lanak posta elektronikoz baino ez dira bidaliko honako helbide honetara: certamenes.literarios.ansoain@gmail.com

Obra formatu digitalean aurkeztuko da, pdf edo jpg fitxategi gisa.

Lanak obraren izenburuaren bidez baino ez dira identifikatuko, eta posta-helbide honetan adierazi beharko dira:



Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala
C.I.F./ I.F.K. P3132500D
Tel.: 948132222
012 - 948012012

Udaletxeko Plaza, 1
Plaza Consistorial, 1
31013 Nafarroa – Navarra
ansoain@ansoain.es
www.ansoain.es

1. Telefono-zenbakia
2. Zein mailatan eta zein ikastetxetan ikasten duen
3. Zer modalitatetan aurkezten den (ipuina edo "Bertso paperak").

SARIAK.

Sari bat emanen da modalitate bakoitzean:

100 euroko txartela liburuak eta joko didaktikoak erosteko. Berdinketa balego saria bi irabazleen artean banatuko da.

Egile berak ezin izanen du modalitate berdinean lan bat baino gehiago aurkeztu.

AURKEZTEKO EPEA 2019ko ekainaren 19an 14:00etan bukatuko da.

INFORMAZIOA: certamenes.literarios.ansoain@gmail.com